

iruner

187. zenbakia. 2010eko urria



Miguel Angel Muñagorri,
Txingudiko
Zerbitzuetako
gerentea



Lanbideren
Irungo zuzendaria
enpleguaz mintzo

Patxi Vila,
txirrindularitza
profesionalera
bueltan



Argazkia: A. Epelde/PEDALIER



Zer egin behar da Gipuzkoa TB Txingudi
LTDz ikusi ahal izateko?

29. KANALEAN sintonizatu. Kanal horretan seinalerik jasotzen ez baduzu, jar zaitez harremanetan antena instalatzailearen batekin.



PROGRAMAZIOA

2010-2011

Txingudiri buruzko programak

	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala
8:30-9:00	Euskadiko berrien laburpena	Euskadiko berriak (Errepikap.)			
9:00-9:30	Txingudiko berrien laburpena	Txingudiko berriak (Errepikap.)			
12:30-13:30	Foro Abierto (Errp.)	Tiempo Real (Errp.)	Gipuzkoako gaiak (Errp.)	Foro Abierto (Errp.)	Micrófono Abierto (Errp.)
13:30-14:00	Txingudiko berrien laburpena (Errp.)	Txingudiko berriak (Errepikap.)			
17:30-18:30	Foro Abierto (Errp.)	La Banatua (Real Union) (Errp.) 17:30-19:00	Tiempo Real (Errp.)	Hablando Claro (Errp.)	Micrófono Abierto (Errp.)
20:30-21:00	Euskadiko berriak				
21:00-21:30	Txingudiko berriak				Asteko berrien laburpena
21:30	La Banatua (Real Union) 21:30-23:00	Euskadiko magazina 21:30-22:30			Zinea
		Tiempo Real 22:30-23:30	Hablando Claro 22:30-23:30	Micrófono Abierto 22:30-23:30	
Larunbat eta igandeetan					Larunbatetan
12:00-1400 Asteko Txingudiko Berrien errepikapena		20:30-22:30 Asteko Txingudiko Berrien errepikapena			18:00-19:00 Micrófono Abierto (Errp.)

Laguntzaileak



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte eta Erakunde Harremanetarako Departamentuaren laguntza jaso du.



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du.

Helbidea: Salis hiribidea, 21 - behea. 20304 IRUN. Tel: 943 63 18 78. Faxe: 943 63 18 77
irunero@infotxingudi.com
Argitaratzailea: TB S.L.
Erredakzioa
maketazioa: Ana Grijalba.
Kolaboratzailea:

Mikel Asurmendi
Zuzentzailea:
Xabier Kerexeta.
Inprimategia: Antza
Tirada: 3.500 ale
Lege gordailua: SS-230-94
ISSN: 1134-0606

Aurkibidea

4.- *Lapikoan:*

- Lan merkatuaren egoera, Lanbideren Irungo bulegoko zuzendariaren eskutik.
- Lan merkatua zertan den: hiru gazteren kasuak.
- Gipuzkoa Telebista Txingudi.
- Santiago Bidea Irundik: Done Jakue urtearen balantzea.

12.- *Kirolak:* Patxi Vila txirrindularia.

15.- *Gai Nagusia:* Txingudiko Zerbitzuetako gerentearekin aurrez aurrekoa eta Arasoko garbigunearen inguruko datuak.

19.- *Bi hitzetan:* Berri laburrak

23.- *Kolaborazio literarioa.* Ainara Maia.

24.- *Kuttun gabinete psikopedagogikoa:* Nola lagundu haurrei ongi jaten.

26.- *Eleak iruten*

27.- *Lerroz lerro.* Iban Zaldúa

Ipuinak –Antologia bat–

28.- *Kultur Agenda*

30.- *Gazte Informazio Bulegoko berriak.*

OLAIZOLA

Beraketa kalea, 17
20302 IRUN

TEL: 943 62 66 84 - Faxe: 943 62 65 85

Posta elektronikoa: inmolaizola@euskalnet.net

API 316

Inmobiliaria agentzia

Salmenta

Alokairuak

Promozio berriak

Aholkularitza

Jose Mari Roteta, Irungo Lanbideko bulegoaren arduraduna



“Bidasoara enpresak erakartzea funtsezkoa da enplegu tasa handitzeko”

Euskadiri enplegu politika aktiboak transferitzeko akordioa erdietsi berri den honetan, Lanbideren (Euskal Enplegu Zerbitzua) Irungo bulegoko zuzendari Jose Mari Rotetarekin hitzordua izan dugu. Ekonomiaz, enpleguaz eta krisi kinka honen etorkizunaz jardun du elkarrizketan.

- Zein da lan merkatuaren egoera orokorra?

Jarduera ekonomikoak behera egin duen heinean langabezia tasa gora joan da (ikus aldameneko koadroa). Adierazle gisa, aipagarria da 2008an 3.270 lagun artatu genituela Irungo Lanbiden, eta 2009an, 4.162.

- Zein da lan bila datorren pertsonaren profila?

Ekonomiak okerrera egin orduko, lehen lan falta ez zuten sektoreetako langileak etortzen zaizkigu bulegora; esate baterako, eraikuntza aritutakoak. Halaber, enplegua erregulatzeko espedientea onartu ondoren kaleratutako langileen kasuak ere ugartu dira (Egoki, Porcelanas...). Urte asko ofizio

LANGABEZIA	09ko iraila		10eko abuztua		10eko iraila		10-abu. / 10-ira.	
	Guztira	*Tasa	Guztira	*Tasa	Guztira	*Tasa	Ald. absol.	Ald. erlat.
Iturria: INEM								
Irun	4.336	% 13,7	4.365	% 13,8	4.442	%14,1	77	%1,8
Gipuzkoa	37.199	%10,4	38.728	% 10,8	38.904	%10,9	176	%0,5
EAE	123.394	%11,4	129.293	%12	130.549	%12,1	1.256	%1

*Egailan Laneko Merkatuaren Behatokiak biztalaria aktiboa kalkulatzeko duen metodologia egokitzean oinarrituta.

batean eman duten langile hauentzat enplegua topatzea zaila da; gainera, eskaintza murriztu da. Oro har, bigarren sektorea gaizki dago, baina okerrago eraikuntza, industria baino.

Lan bila dabilenaren sexuari dagokionez, aldaketa aipagarria gertatu da: 2007an bulegora etortzen ziren gehienak emakumezkoak ziren; orain, berriz, gizonezkoak. Arrazoia da krisiak ez duela horrenbeste jo emakume askok lan egiten duten sektorean, zerbitzuetan, alegia.

- Lan bila dabilzanak beren mailakoak ez diren lanpostuekin konformatzen dira krisi garaietan?

Gaur egun exigentzia maila jaitsi da. Bulegoan artatzen ditugunen %25ek ikasketa unibertsitarioak burutuak dituzte. Horietatik "biziraupeneko" (prestakuntza mailatik beherako) enpleguak onartzeko prest dauden portzentaia duela bi urtekoa baino handiagoa da.

- Zein dira gehien kontratatzen diren enpleguak?

Hauexek dira 2008ko kontratu erregistro ofizialetik Gipuzkoa Ekialdeari dagozkion datuak: garbitzaileak (17.459), industriako peoiak (16.333), ostalaritzako zerbitzariak (14.168), dendariak, garraioko eta zama lanetako peoiak, ospitaleko erizain laguntzaileak, administratiboak (4.299). Datu hauen irakurketa egitean hainbat aldagarri kontuan hartu behar dira; esate baterako, zenbait lan motatan ohikoa dela pertsona berari urtean kontratu bat baino gehiago egitea.

- Nola ikusten duzu etorkizuna?

Kinka ez da gauetiki egunera aldatuko; baina, behinik behin, emeki-emeki ekonomia hazten ari da. Euskadin 2. hiru hilera % 0,5eko hazkuntza eman zen, eta aurrekoan ere igoera xumea izan zen.

Ekonomia globalizatzen ari den testuinguru honetan enpresek aukera zabala ez ezik, lehia ere erruz badute. Marko berriari probetxua ateratzeko, enpresek kanpoan harremanak egin behar dituzte, ongi posizionatuak egon daitezten.

- Bidasoaldean enplegua bultzatzeko zer ekintzak izango luke lehentasuna?

Bidasoaldea erakargarri egitea funtsezkoa da kanpoko nahiz bertako enpresek inberti dezaten. Instalatzeko lur eremuak eskaini ez ezik, oso inportantea deritzot Abiadura Handiko Trenaren proiektuari, Europa osora merkantziak azkar garraiatzeko aukera emango duelako. Bestalde, energia berriztagarriekin, bioteknologiarekin edota pertsona adinduekin lotura duten negozioak etorkizun onekoak dira.

- Euskadiri berriki enplegu politika aktiboen eskumena transferitu zaio.

Zer ekarriko du berri?

Berri positiboak eta erronkak. Euskadin lana aurkitzen laguntzeko baliabide gehiago egongo dira: ikastaroak, langileak kontratatzeko eta enpresak sortzeko laguntza gehiago... Gainera, arlo batzuetan ematen den INEMen eta Lanbideren zerbitzuen bikoiztasuna konponduko litzateke. Erronka izango da Lanbideren 80 enplegatuei INEMen 500ak gehitu ondoren kalitatezko zerbitzua ematen jarraitzea eta hobetzea.

Irunerok hiru gazteri haien lan egoeraz eta etorkizunaz galdegin die

“Behar izatera, edozein
lan onartzeko prest nago”

Ikasketak ekainean bukatutakoan udan *Noticias de Gipuzkoa* egunkarian praktiketan ibili da. Ilusio handiz jaso du urtebetez aipatu hedabidean bekadun gisa jarduteko eskaintza, prentsa baita, hain justu, berak gustuko duen espezialitatea. “Etorkizunean, ordea, ikasketekin harremana duen enplegua lortzea oso zaila ikusten dut. Behar izatera, supermerkatu batean apalbetetzaile lana egiteko ere prest nengoke”. Oraingoz, diru sarrera bakarra asteburuetan saskibaloï partiduetan epaile aritzeagatik poltsikoratzen duena da. “Lizentziatu garen lagun askok pentsatzen dugu: goi-mailako ikasketak burutu izan ez bagenitu, hobe”.

**Alejandro Lopez, Giza Zientzietan eta
Komunikazioan lizentziaduna. 21 urte.**



“Lan bolumenak behera egin du, argi eta garbi”

Yoel de las Heras. Postaria



DBH gainditu ostean, lan-munduratu zen. Posta zerbitzuan ordezkapenak egiten hasi eta piskanaka urte guztian zehar lana edukitzea lortu zuen. “Krisia hasi zenetik lan bolumenak behera egin du, argi eta garbi. Ondorioz, urteko egun gehienetan lana badut ere, aste batzuetan ez dut kontraturik izaten. Lagunei ere antzeko zerbait gertatu zaie; alegia, lan gutxiagoren truke diru gutxiago eskuratzen dutela. Dena dela, bizi dugun kinka ikusita, zorioneko dut nire burua!”

Gurasoengandik independizatzeko helburua erdietsiko duen eguna urruti dagoela antzematen du Joelek, krisiaren bukaera bezain urruti.

“Nire ikasketen alorreko enplegua topatzea zaila gertatuko zait”

Estibaliz 5. mailako psikologia ikaslea da. Psikologia klinikoan espezializatu ondoren, lizentziatua izateko praktikak egitea besterik ez zaio falta. “Nire gustuko karrera aukeratu nuen, baina lan egiteko perspektibak nahiko txarrak dira. Aukera gehiago dute psikologia ikasi ondoren master bat burutzen dutenek”. Zerbitzu sozialen alorrean haur txikiei zuzendutako enplegu bat lortu nahi luke. Oraingoan, ordea, nahia baino, ametsa begitantzen zaio. “Pentsa nire promozioan 150 bat psikologo lizentziatuko garena!”

Mugitua eta arduratsua da Estibaliz. Unibertsitatean hasi zenetik han eta hemen ibili da lanean astean zenbait orduz, etxean dirurik eskatu behar ez izateko. Orain Decathlonen jarduten du. Ikasketak amaitutakoan, ordea, ordu gehiagoko enplegua beharko du. “Edozein lan egiteko prest nago”, dio etsipen puntu batez. Hogeita bi urteko gazte honek bere buruari galdegiten dio ea egindako ahaleginak merezi izan duen. “Galduta sentitzen naiz”.

Estibaliz Zubialde. Psikologia ikaslea.



F / O / T / O / K / O / P

FOTOKOPIAK KOLORETAN ETA TXURI BELTZEAN, PLANOEN FOTOKOPIAK,
ENKUADERNAKETAK, PLASTIFIKAZIOAK, ORDENGAILUZKO LANAK,
KAMISETAK, FAX ZERBITZUA, PAPERDENDA,...

Foruen kalea, 4 - 20302 IRUN

Tel./Fax: 943 63 22 11

E-mail: fotokop@telefonica.net



GTB Txingudik seinalea San Martzialetik hedatuko du, arazoak saihesteko

Gipuzkoa Telebista Txingudik bere seinalearen hedapen digitala egiten du dagoeneko, baina Hondarribiko zenbait lekutan oraindik ez da jasotzen. Arazoak konpontzeko bidean daude.

Joan den ekainetik Gipuzkoa TB Txingudik LTDz zabaltzen du bere seinalea eskualde guztira, 29. kanaletik. Hartarako beharrezkoa zen azpiegitura tekniko berria Jaizkibelgo emisio-zentroan instalatu zen. Seinalea Bidasoako antena gehienetan



jasotzen den arren, badira seinalea iristen ez den edo gutxieneko kalitatez iristen ez den Hondarribiko zenbait toki; tartean, Arkoll auzoa, hondartza, Jostaldi pilotalekuaren ingurua eta Zimizarga auzoa. Arazoaren muina, Jaikibel mendiaren magalean bertan egoteagatik, mendiak berak sortzen duen “itzala” edo pantaila efektua da, zeinak jasotze egokia galarazten duen.

Irtenbidea,

aste batzuk barru

Arazoa konpontzeko, Gipuzkoa TB Txingudik San Martzialeko emisio-zentroan errepikagailua muntatuko du.

Bertan Jaizkibelgo seinalea jaso eta bueltan hedatuko da, orain arte estaldura ez zuten lekuetara ere iritsiko dena. Irtenbide horrek ahalbidetuko die egun Txingudi TB kalitate eskasez ikusten dutenei seinalea hobeki jasotzea. Proiektua gauzatzeko beharrezkoa den planteamendu teknikoa lantzen ari da eskualdeko telebista. Hori horrela, San Martzialeko errepikagailua datozen asteotan abian jarriko da.

Seinalea, LTDz

Nahi duen orok telebistan sintoniza dezake Gipuzkoa TB Txingudiren seinalea, beste edozein kate bezala.

GTB da Txingudiko tokiko telebista bakarra. LTDz ikusteko, kanal guztiak berriro sintonizatu behar dira. GTB Txingudi 29. kanalean dago. Hala eta guztiz ere, seinalea agertzen ez bada, nork bere komunitateko presidentearekin harremanetan jarri behar du, antena egokitu zutenean tokiko telebisten seinaleak ere kontuan hartu zituzten ala ez jakiteko

Doitze lana egin ez badago, antenistari deitu behar zaio, lan hori egin dezan. Seinalea jasotzea hiritar guztion esku-bidea denez gero, ez da bilerara berezirik egin beharrik halako erabakia hartzeko.



Aragoi zeharkatzen duen Santiago Bidearen ikuspegi bat.

Argazkiak: Xabier Arribas.

Santiago Bidea, Irundik: paisaia eta lasaitasuna bilatzen duen erromesa

Erdi Aroz geroztik Santiago apostoluaren hilobira Europa kontinentaletik erromesaldia egiten zutenen penintsulako sarbide nagusietako bat Irun izan da. Gure hiria bi bide historikoren abiapuntua da: Kostaldekoa edo Iparrekoa izenez ezaguna denarena eta Barne aldekoa edo San Adriango tunelarena. Azken honek errege-bidearen ibilbidea jarraitu eta Araba zeharkatu ondoren Frantziar Bidearekin bat egiten du.

Kostaldekoka biderik zaharrena da; izan ere, jatorria apostoluaren ehortz-tokiaren aurkikuntzaren garaian kokatzen baita. Alfontso II.aren erromesaldiaren ondoren, haren mendekoak ohartu ziren Kantaurikor kostaldearen lerroari jarraiki Leku Saindura iristea errazagoa zela. Alabaina, Gaztelak musulmanei lurak irabaz-

ten zizkien heinean, Frantziar Bideak garrantzi gehiago hartu zuen, harik eta nagusia izan arte. Azken urteotan, Santiago bideek ezagutu duten erromes kopuruaren gorakadaren eraginez, Irundik abiatzen diren ibilbideak ere berpiztu egin dira, Kostaldekoa bigarrena izatera iritsi baita, frantziarraren ondotik.

Erromesaren profila

Irundik abiatzen den erromesak badaki aurretik duen bidea Orreagan barrena abiatzen dena baino gogorragoa dela. Ibiltariaren profila, beraz, Gaztelakoarenaren bestelakoa da. “Kostaldetik joatera deliberatzen denak 50 urte inguru ditu eta hiruzpalau aldiz egina du bide frantziarra”, zehaztu digu Santiago Bide Lagunen Elkarteko Txingudiko ordezkari

Demetrio Grijalbak. “Bide frantziarra jada ongi ezagutzen dutelako kostaldekoak eskaintzen dituen bestelako paisaia eta jendeekiko harremana bilatzen dute”. Txingudiko ordezkariak argitu duenez, Bidea zailagoa eta klima euritsuagoa izan arren, erromesek trukean bestelako abantailaz gozaten dute; batez ere lasaitasunaz, masifikatua ez dagoen ibilbidea delako.

3.700 erromes Irungo aterpean

Done Jakueren urtea kari, 2010ean Santiagora erromesaldia egingo zuen jende kopurua handituko zelakoan zeuden Txingudiko Elkarteko kideak. Halaxe gertatu da, martxotik urriaren 12ra bitarte 3.700 pertsonak ostatu hartu baitute Erromesaren Irungo Aterpean: iaz baino %26 gehiago dira, bada. Kopuruak are potoloagoak dira kontuan izaki aterpearen 50 plazak beteta zeudelako edo berandu iristen zirelako Martindozeneko aterpetxean lo egin behar izan dutenen zenbatekoa.

Jatorriari dagokionez, 42 herrialdetako ibiltarik erabili dute Lucas de Berroa kaleko aterpea. Elkarteko ordezkariak emandako datuen arabera %50 estatu espainolekoak izan dira; atzerritarren artean, ugarienak, frantziarrak eta alemaniarak. Urrienak, berriz, herrialde hauetakoak: Korea, Hego Afrika, Zeelanda Berria, Ukraina, Letonia, Mexiko eta Argentinakoak.

“Aurreko urteetan bezala, bidea egitera bultzatzen dituen arrazoi nagusia ez da erlijiosoa -dio Demetrio Grijalbak-, zenbateko osoaren %15-20 inguru baita. Motibazioen artean, paisaiarekin, kirolarekin eta artearekin lotutakoak dira aipagarrienak.

Turismoa Bidasoaldean

Erromes askorentzat Irun ez da igarobide soila. Aterpera arratsaldeko lehen orduan iristen direnez, bada, eskualdea gaingiroki ezagutzeko baliatzen dituzte ordu libreak. Ibilbide turistikoak eta gastronomikoak proposatzea da, hain zuzen, aterpeko boluntarioen eguneroko zereginetako bat. Irun betiko gogoan izango dute, esperientzia berezi baten abiapuntua ahaztezina izan ohi den heinean.

Done Jakueren Astea Txingudin



Xabier Arribasek erakutsiko duen argazkietako bat.

- **Urriaren 13an**, Amaia KZn, 19:00etan, *Los Caminos hacia Santiago* ikus-entzunezkoa. Hizlaria: Alvaro Ocariz.
- **Urriaren 14an**, Amaian, 19:00etan, National Geographic-en *En el Camino de Santiago* dokumentalaren proiektzioa.
- **Urriaren 15ean**, Amaian, 19:00etan, *Los Caballeros Templarios* izenburuko dokumentala proiektatuko da eta Luis Toribiok gai beraren inguruko hitzaldia eskainiko du.
- **Urriaren 17an**, 10:00etan, ibilaldi gidatua Behobiko zubitik abiatuz (Frantziako aldetik). Gidaria: Aitor Puche. Iraupena: 3 ordu.
- **Urriaren 17an**, Amaian, 20:00etan, Oreka TX taldearen eskutik, *Nomadak* izeneko kontzertua. Sarrera: orokorra, 12 euro eta prezio murriztekoa, 8,20.
- **Urriaren 13tik 24ra**, Euskadiko Kutxaren aretoan, Santiago Bideen inguruko argazki erakusketa. Egilea: Xabier Arribas. Orduetgia: lanegunetan, goizez; jaiegunetan, arratsaldez.

Patxi Vila, txirrindulari profesionala

Argazkiak: A. Epelede/PEDALIER



*“Txirrindulari
sentitu nahi
nuen berriro”*

Irailaren bukaeran Patxi Vilak Flaminia italiar taldearekin kontratua sinatu zuen. Bidasoarra txirrindularitza profesionalera itzuli da, dopinagatik bi urteko zigorra bete ondoren.

- Lehiara italiar talde batekin bueltatu zara. Zure ahaleginaren ala zortearen emaitza da?

Egiari zor, nik ere ez dakit. Bi faktore horien nahasketari esker gertatu delakoan nago: burugogor jokatu dut eta azken unean zorteak lagundu dit. Bueltatzeko eskaintza honen

aurrean ez dut zalantza egin; barru-barruan ni txirrindularia naiz eta nahi nuena lasterka egitea zen, berriro txirrindulari sentitu.

- 34 urte dituzu; baina txirrindulariek zuen ibilbidea luza dezakezue. Nola ikusten duzu zure burua fisikoki?

Bada, hori inkognita bat da. Triatloia praktikatutako goi mailako autoexijentziaz eta horri esker ez ditut bi urte hauek "galdu". Halere, gaur egun txirrindularitza profesionalean nire erredimendu maila noraino iristen den inkognita bat da. Gogo faltarik ez dut eta ongi nago, baina ez dakit nire kirol-bizitzaren bigarren zatia nolakoa izango den.

- Banako kirola den triatloian ibili zara. Fisikoki trantsizio horiek gogorrak izan behar dute, ezta?

Triatloia esperientzia zoragarria izan da eta txirrindularitzan ibilbide profesionala amaitutakoan bueltatuko naizela uste dut. Izugarri eskatzen duen kirola da, guztiz osoa behar duzu izan. Teknikoki zaila da hiru diziplinetan maila ematea, eta "sufrimendua" txirrindularitzan baino handiagoa da, kirol batetik besterako transizioengatik eta egun bakar batean dena jokatzen duzulako.

- Maila profesionalerako itzulera ospatzeko modu on bat?

Otsaileko goiz hotz eta eguzkitsu batean lasterketa batean parte hartzea, nire lagun minak, familia eta, batez ere, emaztea eta alaba inguruan ditudala. Ondoren, denok bazkaltzera.

- Italian, hain zuzen, igaro zenituen zure urterik onenak. Hain pasiozkoa den lurralde hartan aintzatetsia sentitzen al zara?

Italiakoak ditut oroitzapenik onenak. Nire bigarren etxean bezala sentitzen naiz. Bai, kirolari gisa hemen bezain aintzatetsia naiz. Han erdietsi ditut nire lorpenik handienak.



Patxi, SR EVENTS-ekin Auritzen.

"Triatloiarri esker ez ditut galdu bi urte hauek"

- Txirrindularitza aldizkari bateko kolaboratzailea ere bazara. Ipurtarina zara?

Eskualdean lantzen ditugun PEDALIER eta PDL-PRO izeneko bi aldizkarietan kolaboratzailea naiz. Gainera, zenbait txirrindulariren entrenatzailea naiz eta triatlon marka berri (TriGrandPrix) bati aholkuak ematen dizkiot. Ezin naiz geldirik egon. Tarteka ur handitan sartzen naizela badakit, baina nire izaera halakoa da. Proiektu guztiek badute erakargarri gertatzen zaidan alderdiren bat.

- Berako nafarra izaki, Bidasoako bokalean bizi zara. Gurean gustura eta babestuta sentitzen zara?

Ibaian behera Beratik 14 kmra bizi naizen bidasoarra naiz! Jakina gustura eta babestua sentitzen naizela nire eskualdetzat jotzen dudan honetan! Berakoentzat eskualde konzeptua ibaiak markatzen du, alegia, gurea ez dela Enderlatsan bukatzen, Hondarribian eta Elizondon baizik.

irunero aldizkaria non eskura daiteke?

ANAKA

ANAKAKO KASINOA
KUTXA
BURDINDEGIA (Kutxaren
aldamenean)
ANAKAKO AUZO ELKARTEA
BIDASOAKO OSPITALEA

BELASKOENEA:

TXIMISTA TALDEA (Parrokia)
BELASKOENeko AUZO
ELKARTEA

ARBES eta PALMERA-MON- TERO

VICTORIA TABERNA
(Altzukaitz)
LA AGRICOLA
PALMERAKO HAINBAT
KAFETEGI-TABERNATAN

BEHOBIA eta ARTIA

HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIA-
LA
TRINKETE TABERNA (M^a
Juncal Labandibar kalea)
AZKEN PORTU KIROLDEGIA
KUTTUNA HAUR ESKOLA
(Artiako Caro Baroja plaza)

ERDIALDEA

HERRI JAKINTZA (Nafarroa
hiribidea)
BRASIL gozo-denda
ELKAR liburu-denda
OSKARBI Liburudenda
EUSKADIKO KUTXA (Kolon)
KUTXA (Kolon)
JUBILATUEN ETXEA (Luis
Mariano)
VIRGINIA kafetegia
SIRIMIRI taberna
KUTXA (Gipuzkoa hiribidea)
KIOSKO 33 (Argentinari
Errepublikari)
HAZ-SAC

FOTOKOP (Foruen karrika)
GAZTE INFORMAZIO BULE-
GOA (Foruen karrika)
EUSKARA Arloa (Foruen
karrika)
ACUBI (Foruen karrika)
IZOKINAREN KOFRADIA
(Kale Nagusia)
ARANO taberna
MANOLO taberna
SARGIA taberna
AEK Euskaltegia
ARTXIBOA eta LIBURUTEGIA
MENDIBILGO MUSIKA
KONTSERBATORIOA
ARTALEKU KIROLDEGIA

DUNBOA

TOMA PAN Y MOJA (S.
Pedro)
OSASUN ZENTROA
KUTXA (Nafarroa hiribidea)
ERKA (Salvador Etxeandia)
ALDABE paper-denda

LAPITZE

ANBULATORIOA
AMAIA KZ eta Pio XIIko kios-
koa.
OGIBERRI (Serapio Mujika)
EUSKADIKO KUTXA (S.
Mujika)

MEAKA

MEAKAKO Bizilagunen
Elkartea
ERROTAZAR
OLA Sagardotegia

OLABERRIA

ESTEBENEA taberna
LABEKO ETXEA jatetxea

ALDE ZAHARRA

UDAL EUSKALTEGIA
ALDE ZAHARREKO BIZILA-

GUNEN ELKARTEA
(Larretxipi)
EKT (Larretxipi, 12)
KURPIL KIROLAK (Peña k.)
HAZIA taberna (Peña kalea)
ESKINA taberna
EUSKADIKO KUTXA
(Urdanibia)
KULTURA Arloa
(Ospitale Zaharra)

ANTZARAN

NEKANE paper-denda
Lekaenea

SAN MIGEL

KOLON burdindegia
(Hondarribia kalea)
KUTXA (Zubiaurre)
EUSKADIKO KUTXA
(Zubiaurre)
SAN MIGELEKO AUZO
ELKARTEA (Luis de Urantz,
24)
ATREZZO (Geltoki kalea)

SANTIAGO

AGUIRRE okindegia (Junkal)
CANON (Santiago k.)
SANTIAGO AUZO ELKAR-
TEA
BIKOTE (Erromes plaza)

URDANIBIA

TANDEM kafetegia

KATEA

KATEKO AUZO ELKARTEA

LARREAUNDI

OKINDEGIA (Eguzkitzaldea
k.)
AUZO ELKARTEA
(Iñigo Loiolako)
LARRARTE Harategia
(Eguzkitzaldea, 17).

Miguel Angel Muñagorri, Txingudiko Zerbitzuetako gerentea

“Hondakin organikoen bilketan biztanleen %20 baino gehiagoren parte-hartzea espero dugu”

Miguel Angel Muñagorrik 22 urte daramatza Txingudin lanean. Egun Txingudiko Zerbitzuen gerente dena 1988an hasi zen lanean Irungo Ur Zerbitzuan.



- Europako herrialde aurreratuenekin alderatuta, zein da gure maila, birziklapenari eta ur kontsumoari dagokionez?

Etxeko urari dagokionez, Txingudiko biztanle bakoitzak egunero 119 litro kontsumitzen ditu, batez beste. Datuak Europako batez bestekoaren maila berean kokatzen gaitu. Hortaz, gurean uraren arrazoizko kontsumoa egiten dela esan dezakegu..

Bestalde, 2000. urtean bildu ziren hiri-hondakin guztietatik %16,6 birziklatu ziren, eta orain tasa %34,57koa da. Azken datu hau guztiz garrantzizkoa da, 2007. urte-tik hona Txingudin sortu ditugun hondakinaren kopuruak

gutxitu diren arren, sailkako bilketarenak handitu dira eta. Bospasei urte barru %40ra ere iristea aurreikusia dago; alegia, hondakinaren kudeaketan aurreratuen dauden Europako herrialdeetako ratoria.



Endarako urtegia.

- Zer proiektu dute Txingudiko Zerbitzuak

birziklapena handitzeko?

2010. urte bukaeran edo datorenaren hasieran edukiontzi marroiak ezartzeko prozesuari ekingo diogu. Konposta egiteko hondakin organikoak botako dira haiexetan. Lehen fase batean hiritarren %20ri eman go zaio zerbitzua, eta, aurrerago, %100i.

Sistema pertsonalizatua izango da, hau da, hondakinak sartu ahal izateko, erabiltzaileak giltza bat edukiko du.

- Nolako erantzuna espero duzue?

Orain arte Txingudiko birziklapenarekiko erantzuna bikaina izan da. Edukiontzi marroia dagoeneko jarri den beste udalerrietan hiritarren %20k parte hartzen du batez beste. Guk portzentaia hori gaintzea espero dugu. Bailarako biztanleen erantzuna ona izaten da.

- Zer iritzi duzu etxeko sistemaren inguruan?

Dagoeneko Txingudiko komunitateak bilketa pertsonalizatua egiten du komertzioetan eta industria-eremuetan. Emaitzak onak dira. Bestalde, ez dugu uste etxeko sistema Txingudiko populazio guztiari zabaltzea egokia denik. Izan ere, herritarrei eragozpen handiagoak sortzen dizkie eta garestiagoa litzateke. Oro har, gaur egun erabiltzen dugun sistema egokia dela iruditzen zaigu, laster organikoen bilketarako kontainera aplikatzen hasiko garela kontuan izanda, gainera.

- Alde batetik, birziklatu behar da; baina, bestalde, ontzi gutxiago sortzea komeniko litzateke.

Bai, egia da. Hala eta guztiz ere, ontzien bolumena gutxi-

tzeko ahaleginak egiten dituzte, eta ontziek eguneroko bizi-tza errazten digute. Birziklapenari dagokionean, esfortzua gaikako bilketa era egokian egitean jarri behar da; edukiontzi berdean paper asko topatzen dugu, adibidez.

- Jaizkibeldik ura ekartzeko proiektuak inbertsio handia eskatzen du.

Behar-beharrezkoa al da?

Uraren hornikuntza bermatzearen ikuspuntutik, guztiz justifikatua dago. Guztira 11 milioi euro inbertituko ditugu, Mankomunitateak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak erdibana ordainduta. Egun, Txingudiko ur-hornidura Endarako urtegiaren bitartez egiten da. Endararen edukiera eskualdea hornitzeko nahikoa bada ere, arazoak izan daitezke hilabete batzuetan jarraian euririk egiten ez badu. Horregatik, proiektu horren bitartez, Jaizkibeldik Elordiko Ura Tratatzeko Plantaraino (EUTP) ura eramango dugu, Endarako urtegiak eskaintzen duen hornikuntzari osagarri moduan aritzeko. Jadanik erabiltzen dira Jaizkibelgo hainbat putzu errefortzu moduan; baina, lan horiei esker, errefortzu gaitasuna %30etik %60ra igoko da. Lanak 2012rako amaituta egotea aurreikusten dugu.

Garbiguneari esker hondakinen bilketak nabarmen egin du gora

Pasa den urteko maiatzean Arasoko Garbiguneak atek ireki zituen, kaleetako kontainerretan bota ezin daitezken hondakinak jaso ahal izateko. Harrezkeroztik lortutako emaitzei bikain irizten diete Txingudiko Zerbitzuek. Garbigunea eraikitzean ezarritako helburu nagusietako bat, alegia, partikularrei sarrera erraztea, argi islatzen da emaitzetan: 2009ko maiatzetik aurtengo abuztura arte partikularren 10.260 sarrera egon dira, eta gremioen 8.400. Guztira 18.661 sarrera izan dira. Gremioek soilik erabiltzen zuten San Narcisoko instalazioetako 2002 eta 2008ko datuekin alderatuz gero — 3.600 sarrera urtean batez beste — gorakada nabaria da, eta partikularren erabilerak pisu handia du.

Garbiguneari esker, bilketa zerbitzua partikularrei ere eskaini dakieke. Bidenabar, azpimarratzekoa da irekiera-ordutegi zabala ezartzeko erabakiaren egokitasuna.

Garbigunean bilketa eginez, bolumen handiko hondakinen bereizketa hobeto egin daiteke.



Arasoko Garbiguneko "bainontzietan" bota behar dira hondakinak.



Horren adierazgarri da egurren eta AEEH (Aparailu Elektriko eta Elektronikoen Hondakinak) delakoen kilo kopurua handitu egin dela. Garbigunetik kudeatutako inauste-hondarren kudeaketak ere nabarmen egin du gora.

Hona hemen bertara eraman daitezkeen hondakin motak: obra-hondakinak, beira zapala — leihoetako beirak eta ispiluak —, igeltsua, plastikoa — bidoiak eta bilgarriak —, zura, inauste-hondakinak, pneumatikoak, txatarra, bolumen handikoak — sofak, koltxoiak — eta etxetresna elektriko txiki zein handiak... Motorretako olioia, fluoreszenteak, aerosolak, margo eta disolbatzaile hondakinak, tinta kartutxoak eta tonerrak, hondakin toxiko eta arriskutsuen ontzi hutsak, bonbonak, botilak eta bateriak ere han utz daitezke, bai eta kaleetako kontainerretan bota daitezkeen hondakin guztiak ere.

Hondakinak, moten arabera, dagozkien bainontzi itxurako kontainer handietan bota behar dira. Garbigunearen erabilpena doakoa da. Obra-hondakinaren, igeltsuaren eta plastikoen kasuan, tasa txiki bat ordaindu behar da, eramandakoak 50 kilogramo baino gehiago pisatzen baldin badu.

Kudeatzen diren hondakinak

- Hondakin inerteak.
- Birziklagarri ez diren bolumen handikoak San Markoseko zabortegira eramaten dira.
- Papera, egurra... Despanorsara.
- Tresna elektrikoak Europako Birziklapen Plataformak kudeatzen ditu.

ZER ERAMAN DAITEKE?

EDUKIONTZIEN GUNEA

- Obra-hondakinak
- Beira zapala (leihoetako beirak eta ispiluak)
- Igeltsua
- Plastikoa (bidoiak eta bilgarriak)
- Zura
- Su-itza-hondakinak
- Beira
- Papera eta kartak
- Pneumatikoak
- Fluoreszenteak
- Etxetresna elektriko txikiak eta handiak
- Fluoreszenteak, aerosolak, margoak eta disolbatzaileak
- Di-hondakinak (HTA, DAgua eta ingurukoak)

HTA Hondakin txiki eta arriskutsuak

- Kartutxoak eta tonerrak
- HTA hondakin txikiak (bateriak, kondentsadoreak, ...)
- Bonbonak
- Auto-bateriak
- Fluor

- Inauste-hondakinak: Konposgune
- Metalikoak: Herriko txatar-biltzailea.
- Pneumatikoak: SIGNUS.
- Motorretako olioia: SANEMAR.
- Sukaldekoa: ECOGRAS.
- Bonbilak: AMBILAMP.
- Bonbonak: REP-SOL.
- Su-itzalgailuak: BABESA.
- Hondakin arriskutsuak: BIDASOA ECOGESTION.

Mintzalaguna egitasmoa, euskaraz mintzatzeko aukera

Irunen eta Hondarribian ehunka lagun aritu dira eta ari dira euskara ikasten. Hainbeste urte eta lanen ondoren, horietako askok ez dute norekin hitz egin edota, beldurra eraginda, ez dira euskaltegitik kanpo euskaraz hitz bakar bat ere esatera ausartzen. Eta erabiltzen ez den hizkuntza... Horrenbestez, aurten ere Irun Iruten Euskara Elkarteak Mintzalaguna egitasmoa antolatu du, Irungo Udalaren eta eskualdeko euskaltegien laguntzaz. Euskaraz hitz egin nahi duen horri (“MINTZAKIDEA”) euskaldun oso bat (“MINTZALAGUNA”) bilatzen zaio astean behin elkartzeko eta euskaraz aritzeko. Ez dira klaseak, eta mintzalagunak ez dira irakasleak, mintzatzeko lagunak baizik.



Parte-hartzaileen zaletasunak, adina eta, batez ere, ordutegia kontuan hartuta, hiru, lau edota bost laguneko talde txoak osatzen dira. Ondoren, talde txo bakoitzak erabakitzen du zer egin: taberna batean elkar daitezke, edota ibiltzera joan, edota erosketak egin, edota... hau da, berdina dio non, noiz eta zertarako elkartzaren diren, baina daukaten helburua euskaraz

hitz egitea izango da.

Asteroko hitzorduaz gain, euskaraz aritzeko aukera gehiago izatearren, ekintza osagarriak antolatzen dira.

IZENEMATEA: 1.- Elkartearen egoitzara jo: Foru kalea 4, 2.ezk.10:00etatik-14:00etara.

2.- Web orriaren bitartez: www.iruniruten.com

3.- e-postaz: mintzalaguna@iruniruten.com

Bidasoa campusa zabaltzeko lanak, aurrera

Jose Antonio Santano alkatea, Obretako ordezkari Miguel Angel Paezekin batera, irailean Ducoureaux Jauregian izan ziren, Mondragon Unibertsitatearen Bidasoa campuseko eraikina zabaltzeko obraren egoera egiaztatzeko.

Alkateak gogorarazi zuen obrari esker gure hiriko unibertsitate-hezkuntzaren eskaintza ere zabaldu ahal izango dela. "Irunen konpromiso aktiboa hartua daukagu hezkuntzarekin; gure zutabe estrategiko bat da, eta lanean segiko dugu gure irakaskuntzako zentzoi aukera gehiago eta

kalitatea handiagoa emateko", adierazi zuen.

Gaur egun, 270 ikasle daude matrikulatuta Bidasoa campusean, non Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritzako eta Lidertza ekintzaile eta berritzaileko graduak ematen diren; horiez gain, Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritzako lizentziatura eta Enpresa Zientzietako diplomatura ere bai. Bi master ere ematen dira: Marketing and Management eta irristatze-kirolak-Surfen ikastaro aurreratua eta Lankidetzaren berrikuntzako.

Oñaurreko sustapen publikoko etxebizitzak, abian

Oñaurre eremuko urbanizazio lanen lehenengo harria jarri dute jada. 67.000 metro koadro dituen azalera honetan sustapen publikoko Irungo etxebizitza multzorik handienetako bat eraikiko da. Proiektuak guztira 400 etxebizitza berri aurreikusten ditu. Egitasmoa aurrera eramateko hitzarmena Irungo Udalak eta Eusko Jaurlaritzak joan den martxoan sinatu zuten. Akordioa lehen harria jartzearekin batera gauzatu dute Iñaki Arriola Etxebizitarako, Herri-lanetarako eta Garraiorako sailburuak eta Jose Antonio Santano Irungo alkateak. Eraikiko diren 400dik gora etxebizitzetatik, 300 babes ofizialekoak izango dira; 128 Eusko Jaurlaritzak eramango



Oñaurreko magalean lanak hasi dira jada.

ditu aurrera eta beste 172ak IRUNVIren bidez egingo dira. Halaber, hitzartutako 48 etxebizitza martxan jarriko dira, prezio mugatu batean.

Jose Antonio Santano Irungo alkatearentzat, proiektu honek hiru norabidetan aurrera egingo da ahalbidetzen dio Iruni, hiri eremuari jarraitutasun handiago emanez.

Emakumeentzako Jabetza Eskola

Irungo Udalak, Emakumeentzako Jabetza Eskola egitasmoaren barruan, datozen hilabeteotarako honako ikastaro hauek antolatu ditu:

1) Gaia: *Ez dut printzesa izan nahi*. 18-30 urte bitartekoei zuzendua. Urriaren 25ean, azaroaren 2an eta 8an. Maitasun erromantikoaren filosofiarekin hausteko klabeak aztertuko dira.

2) *Emakumeen mugimendua genero indarkeriaren aurrean*. Azaroaren 5ean, 6an, 19an eta 20an. Xedea: Emakumeenganako indarkeriaren arazoak konpontzeko era berriak sortzeko sentiberatasuna areagotzea. Izena emateko epea: Urriaren 20ra arte. Lekua: 010 (943 50 51 52).

Udalbatzak Porcelanasen 445 etxe eraikitzeko plana onartu du



Joan den irailean Irungo udalbatzaren osoko bilkurak Porcelanasa-Zubeltzu eremuko Hiri-Antolamenduko Plan Berezia behin betiko onartu zuen. Azken izapide hori gaituta, planak aurreikusten dituen 445 etxeak (90, babes ofizialekoak) eraikitzeko proiektua gauzatuko da. PSE-EEK, PPK, EAJ-PNVk eta ezker abertzaleko zinegotziek alde bozkatu zuten. EBB-Aralarreko zinegotzia, berriz, abstenitu zen, eta talde horretako bozeramalea ez zen bilerara joan, greba egin zuelako. EBB-Aralarrek, hurrengo egunetan egindako adierazpenetan, gogor kritikatu zuen proiektua, “hiriari iruzurra” dela eta asmoa “dirujana egitea” besterik ez dela esanez. Talde politiko berak gogora ekarri zuen operazio urbanistikoaren helburua Porcelanasek jarduera manten zezan ahalbidetzea zela. PSE-EEko Miguel Angel Paezek “adierazpen hauek, faltsuak izan ez ezik, min ematea eta prozesuaren inguruan zalantzak zabaltzea dituzte xede bakartzat”.

Gabiria kalea, 15 - 179
Katea auzoa - IRUN
Tel 943 63 16 32 Faxa
943 63 16 02

- SONORIZAZIOA
- ARGIZTAPENA
- GRABAZIO-ESTUDIOAK
- ERREALIZAZIORAKO PLATOAK

- BIDEO-ZINEMA-PUBLIZITATEA
- BIDEO-PROIEKTAGAILUA
- PANTAILAK

San Juango obran indusketa lanak hasi dira

Joan den hilean pantaila-hormak eta zutabeak eraikitzeko fasea amaituta, San Juan Plazako obran hasiak dira dagoeneko indusketa lanak. "Obrak perspektibarekin behatzen badira, jadanik igarri ahal da plaza berriaren antolamendua. Goiko lauza amaitua dago eta dagoeneko marraztuak daude erdiko pergola eta Prudencia Arbiderako errepi-dea. Orain azpiko lanekin has-teko momentua da", azaldu zuen Miguel Paez Obretarako udal ordezkariak.

Jose Antonio Santanoren hitzetan, "zirrargarria" da ikus-tea nola konfiguratzen ari den plaza. "Irundarrek parte hartu zuten proiektuaren hautapene-



an, eta orain forma hartzen eta errealitate bilakatzen ari da"

Aipatu lauza, aldi berean, lur azpiko eraikinaren teilatua eta plaza osoaren etorkizuneko urbanizazioaren oinarria izan-

go da.

Obran dagoen erdiko hutsunetik hasi da indusketa, eta udal-letxeko fatxadatik hurbil dagoen paintaila-hormarantz abiatuko da.

33 pertsonak parte hartu dute "Ideiatik enpresara" programan

Bidasoa Biziriketako Autoenpleguaren Departamentuak "Ideiatik enpresara" programarekin jarraitzen du, autoenplegua sustatzeko asmoz. Lau tailerrek osatzen dute negozio berriak antzematetik enpresa berriak sustatzearaino doan programa hau.

Jarduera hau urtearen hasieratik aurrera eramaten ari da, eta orain arte negozio-ideia bat zeukaten 33 pertsonak prestakuntza jaso dute. Tailer hauen helburu nagusia autoenplegua sustatzea da, lanean hastearren eta, ahal den

neurrian, negozio bat sortzeko egin beharreko ibilbidea erraztearren. Horretarako beharrezkoak diren tresnak eskura jartzen zaizkie, negozio-ideia garatzeko edo enpresa berrien sustapena aurrera eramateko. Prozesu integratu bat diren jarduera-multzo bat planteatzen du programak. Besteak beste, negozio-ideiak antzematzea, ekintzaileen prestakuntza enpresakudeaketaren arloetan, eta balio eta gaitasun ekintzaileen garapena ere jorratzen dira programa honetan.

Segi idazten

Hori erran dit gaur goizean berean ikastolako aspal-diko lagun batek, Agustinek.

Nik irribarre egin diot, eta pentsatzen hasi naiz: zertarako idatzi? Zergatik idazten dudan badakit, nire barnea husteko, nire iritzia emateko; baina zertarako? Zertarako idatzi ditut iritzi-artikuluak? Zertarako idatzi ditut maitasunezko eskutitzak? Zertarako bidali dut aurten nere bizitzan lehenbiziko aldiz San Valentín egunez postal bat Oiartzunera?

Irribarre egin diot Ainarita txikiari, eta oroitu naiz nere lagun guztiez eta familiaz, baina batez ere duela ia bost urte 2005eko HATSAREN POESIA eskuetan idazle eta poeta bat nintzela irribarretsu esan zidan Abbat lagun poetaz oroitu naiz. Eta gero, idazten segitzeko animatu nauten guztiez oroitu naiz.

Kaixo Abbati eta maite nauzen bakoi-tzari:

Zer moduz zaude? Ni oporretan, baina maitasuna edota adiskidetasuna inoiz ez dagoenez oporretan, eskutitz hau igortzen dizut nola zaudeten jakiteko. Pasa den Olentzerori opari bakar bat eskatu nion: ZURE BESARKADA.

Ez dakit jaso duzun nire eskutitzik edota postalik atzerritik, ez baitut erantzunik jaso, egunero begiratu badut ere postontzian. Aberrian, berriz, zure ongietorri-besarkada espero nuen uda honetan. Zu behar zaitut, adiskide! Badakit ez dizudala inoiz ezer eskatu, baina ni beti egon naiz zure ondoan eta zure deiak hartu ditut... negar egiteko, barre egiteko, hitz egiteko,



edozertarako.

2010, pua ke desastre! nere bihotzak asko sufritu du eta bakarrik sentitzen naiz... zure animoak behar ditut... ez dizut ezer eskatzen, baina egizu zure bihotzak eskatzen dizuna, ez beste pertsona batek.

Anaia ezkonduko zait irailaren 25ean Abbadiako eremuan, "nire txoko gogokoenean", oroitzen? ez dut bikotekiderik gabe joan nahi anaiaren ezkontzara, baina hala beharko du, eta bihotza triste eduki arren, irribarre dirdiratsua aterako dut... familiagatik!

Mundu honetan kotsolatzen nauen gauza bakarra da zure maitasuna-adiskidetasuna dudala oraindik... ala? Inkondizionalki, ala? Ez dakit zergatik ezagutu genuen elkar, baina hala behar zuen, eta elkarrekin egongo gara beti nolabait ere... lagun berezi moduan.

Ikusi arte

Muxu zaparrada

Eta idazten segituko dut, seguru aski, norbait hunkituko baitut.

Eskerrik asko nire bihotzeko guztioi!

Olerkari ameslaria



Jan, jan, jan eta

Nola motibatu eta lagundu ha

Askotan entzuten dugu gure hurrek gero eta okerrago jaten dutela, litxarkeriak dituztela gustuko eta ondorioz zenbait hurrek pisu arazoak dituztela. Gazteengan ere gero eta maizago ematen dira anorexia edo bulimia arazoak. Gure haurrak osasuntsu janez hezi nahi ditugu; baina gizarteak gero eta propaganda indartsuagoak egiten ditu janari ez osasuntsua saltzeko (txokolate eta esnegainezko opilak, hanburesak jostailuekin...). Helduok, janaren gaiarekin kezaturik gaude eta gure buruari galdegiten diogu: Zer da ongi jatea? Denetatik jan behar da? Litxarkeriak edo gozokiak ere bai? Eta nire alaba anorexikoa bada?

Sarritan esaten dugun bezala, ez dago guztiontzat baliagarria den errezeta magikorik. Hala ere, hona hemen gogoeta egiteko eta gure zalantzak argitzeko zenbait puntu:

JANARIAREN ETA JAN ORDUAREN KONTZEPTUA ALDATU DA

Gaur egungo familiako kide gehienek lan egiten dute eta, ondorioz, gero eta denbora gutxiago eskaintzen zaio bazkalorduari eta janaria prestatzeari. Janaria eta jana prestatzea estres-iturri bilakatu da. Tarte txikia dugu bazkaltzeko eta horrek janari azkarrak egiteko joera bat sortu du.

Bestalde, gizarte kontsumistak janariaren produkzio anitza sustatu du. Hurrek ez dutela barazkirik jaten? Makarroi berdeak ipiniko dizkiogu, horiek barazkiak baitituzte. Ez dutela fruta jaten? Zuku kontzentratuta emango diogu. Eta, gainera, nola ez eskatu txokolatea edo goxokiak,

sartzen garen denda guztietan eskuragarri ipintzen badituzte!

Horretaz gain, osasuntsu jatea oso garesti bilakatu da. Arraina izoztua jatea praktikoagoa izateaz gain, freskoa erostea baino merkeagoa da. Belar dendetan koloranterik gabeko produktuak erosi nahi baditugu (tomatea, erreximeta, ezitia...) ohikoaren prezioaren halako hiru ordaindu beharko dugu.

Beraz, argi dago gizarteak aldatzen ari dela, baina janariaren eta jatorduen garrantziak handia izaten jarraitzen duela:

JANARI OSASUNTSUAK BEHAR FISIKOAK ASETZEN DITU: dieta orekatua guztiz beharrezkoa da ongi hazteko, bai eta gaixotasunak (momentukoak eta etorkizunekoak) eta pisu arazoak saihesteko ere.

BAZKALORDUAK BEHAR SOZIAL ETA PSIKOLOGIKOAK ASETZEN DITU:

Bazkalorduek maila sozialean esanahi berezia hartu izan dute orain arte gure gizartean. Euskal kulturaren, adibidez, ospakizun eta erabaki gehienak mahai inguruan egin eta hartu izan dira. Bazkalorduek deskantsatzeko tarteak izan daitezke, familiarekin eguneroko gertaerak elkarrekin konpartitzeko momentu atsegina edo lagunekin kontakizunak konpartitzeko une atsegina.



a bakea eman!

haurrei ongi eta denetatik jaten



Gurezat janaria eta jan ordua plazerrarekin erlazionatua egoteaz balia gaitzke, haurrentzat ere bazkalordua eguneko momentu atsegina bilaka dadin.

NOLA MOTIBATU ETA LAGUNDU HAURREI JANGELAKO ORDUETAN ONGI JATEN.

Berreskuratu elkarrekin jateko momentuak, otordua esperientziak konpartitzeko momentu atseginak bilakatu.

Jana osasunarekin lotu. Ongi jatea, denetatik jatearen

garrantzia azaldtzea eta hartan hezteak: Fisikoki ongi egoteko, egunean zehar indartsu egoteko eta gaixotasunik ez hartzeko (orain eta etorkizunean).

Helduok eredu garenez, gure jateko modua aztertu. Gehiegikeriarik egiten dugu janariarekin, eta gero erregimen zorrotzak? Gozokiak maiz jaten ditugu?

Ongi jan, eta gauza berriak dastatzen ditueanean esfortzua baloratu. Dastatzearen ondorioz, jakiak gustagarri bilaka daitezke. Ez da egokia haurra jatera behartzea. Autoritarioki jokutzen badugu, haurren ez jateko jarrera areago dezakegu. Ez jatea haurrak erakuts dezaken indar bat izan daiteke. Jarrera kooperatiboaren eta motibazioaren bidez errazago lor daiteke ongi jatea.

Jana, batzuetan, muga-arazo bihur daiteke.

Ondorioz, arauak argi jartzea lagungarria izaten da kasu hauetan: plater bat probatu eta bestea jan behar da, gozokiak larunbatetan bakarrik...

Ongi ez jatearen ondorio logiko eta naturalak adierazi: jolasteko indarrik ez, errazago gaixotzen gara, gosea pasatzen dugu... Haurrak ez badu jaten, gosearen ondorio logikoa bizitzea proba dezake: benetan gose garenean aurrean duguna jan ohi dugu.

Haur bakoitza mundu bat da eta bide ezberdinak jorra ditzakegu jaten motibatuzko. Janariarekin zailtasunak ematen dituzten haurrekin hezitzaile guztien artean plangintza bat egitea komeni da. Adina eta bizitzen ari den garapen aldia ere kontutan hartu behar dira.

Maiz haurrak jangelan utzi behar izaten ditugu, eta hori baliagarria izan daiteke haur edo gaztetxoaren garapenerako. Baina ez dugu ahaztu behar bertako langileak hezitzaileak direla eta hezitzailetzat hartu behar ditugula. Hamaika gauza irakats dezakete: tresnak ongi erabiltzen, denetatik jaten, gauza berriak dastarazten, arau sozialak irakasten... Gizartean haien lana baloratu behar dugu, poliki-poliki haien rol hezitzailea hartzen lagunduz eta lan baldintzak hobetuz.

Ahal dugun heinean etxera eramán bazkaltera, bazkalordu horiek elkarrekin gozatzera! Zoriontsu eta osasuntsu izan!!!!

*MAPI URRESTI ORTIZ
KUTTUN AHOLKULARITZA
PSIKOPEDAGOGIKOA.*

“Maddi Zubeldia kantari ari da plazan”. Maddi, Seaskako andereño. Gure seme-alabei “Pintxo pintxo gure txakurra da ta” goxogoxo abesten ziena. Zein ausarta, Maddi!

Xalotasuna eta naturaltasuna

Maddi Zubeldia kantari ari da han-
hemena!” esan genion elkarri. Bere alabak abesten zuela entzuna genuen, baita Maddik berak senarrarekin lagun artean abesten zuela ere. Baina, bakarlari! Hori ustekabea! Maddi, Seaskan andereño.



Nahia eta Ibaiaren ama. Jende aurrean kantari ari da. Zein ausarta!

Ziburutarra Hendaiara heldu zen irailaren 25ean. Bizpahiru agerraldi eginak zituen ordurako, Azkainen, konparazione. Abbadia Jauregiko kaperan aritu zen. Anton Abbadia zenaren logelarekin bat egiten duen eliz kaperan. Kapera mukuru bete zen eta bildutakook komunio laikoa bizi genuen.

Abbadiaren Zazpiak Bat lema oroitzuz hasi zen Maddi. Mikel Laboaren omenetan abiatu zuen kantaldia, Bertolt Brecht-en *Liluraren kontra* gogotsu abestuz: “Lilurarik ez! Tronpatzerik ez! Kotsolatzerik ez! Denbora ez da luzea, ustelak lurpera, bizitza da handiena, galtzea litzake galtzea dena”.

Lete eta Valverde euskaldunak. Machado espainiarra, Cole Porter irlandarra. Jean Renoir frantziarra, Violeta Parra txiletarra... abestu zituen, besteak beste. Anton Abadia poliglotaren gisa aritu zen. Euskaraz beste, hiru hizkuntzatan jardun zuen Maddi Zubeldiak. Goxo eta erraz. Bere estilora eta ahotsera ederki egokitutako kantak.

Bere kantak ere eskaini zizkigun, alabaina. Hurrekin bizi arazitako letrak eta notak xarman-

ki uztarturiko bi kanta, baita gure herriaren egoerak iradokitako kanta bat ere. Euskal Herriak bizi duen ataka luzearen eta gogorren abesti eztiagarriak.

Bere ahots eztiagarriak kantari naturala bihurtzen du Maddi Zubeldia. Ramuntxo senarrarekin *a capella* abes-

tean, bi ahotsen kontrastarean, bere ahotsak areago ezitia ageri du. Xano Urtzegiren akordeoiak, Txomin Arizagaren gitarrak eta Arkaitz Minerren biolinak eta mandolinak ederki babes-
ten dute abeslariaren xalotasuna.

Xalotasuna da Maddiren kantatzeko moldea, xalotasuna eta naturaltasuna hitz kidekoak dira. Naturaltasuna norberaren ahalmen espresioa izaki. Maddik ausardia gehitzen dio naturaltasunari, ausardia kontrolatua igartzen zaio kantatzeko unean.

“Kantatzen duen herria ez da inoiz hilko!” esaten da. Herri hau kantaria da, bere baitako du kantua. Polita da, gero, bizitzan jasotakoa helduaroan lagunei –eta herrikideei– eskaini ahal izatea. Zubeldiak herria eta lagunak ditu gogaide bere ibilaldi musikalean. Joandakoek utzitako arrastoan ikasia eta esker onekoa da. Horregatik agurtu gintuen, naski, Violeta Parraren *Gracias a la vida* parafraseatuz.

Beharbada, herriko kantari xumeen garaia da. Maddi Zubeldia lekuko. Agian, Ziburutik Hendaiara, Azkainen gaindi, Bidasoan bestaldean ere bide egingen du Maddik. Agian!

MIKEL ASURMENDI

Iban Zalduaren *Ipuinak –Antologia bat–* ekarri dugu urrian. Urriko iraultza heldu ote euskal literaturara? Irakurketa irauliko duten poltsikozko liburuen garaia heldu ote?

Lokomotora ez deskarrilatzea da kontua

Irakurketa irauliko duten ekintzen edo poltsikozko liburuen garaia heldu ote? “Ote, ote, ote?”. Gure mintzoan zalantza adierazteko partikulartasuna dugu ote delakoa. Urriko iraultza heldu ote da euskal literaturara? Akaso. Naski. Agian.

Literatura, printzipioz, bi subjektoren ekintza da: idazlearen eta irakurlearen ekintza. Alabaina, beste eragile batzuek ere parte hartzen dute bien arteko konplizitatea eta jarduera gauza dadin. Argitaratzailearen rola eta argitaletxearen zabalkuntza berebiziko jarduerak dira, kasu. Idazleak, hartara, horretarako bidea prestatzen badu, bere istorioek bi aldiz ikus dezakete argia. Kasu honetan, Zalduak poltsikozko edizioa prestatu du. Gainbeheran etorri bide den irakurketa inarrosi nahi izan du. Agian.

Iban Zalduak *Ipuinak –Antologia bat–* iragarri zigun *Nobela hura* deritzan ipuinean. Ipuina *Itzalak* liburuko sortakoa izaki.

Ander da ipuineko protagonista. Ander idazle bihurtzeko asmoa duen morroia da. Ipuinaren egileari –Iban Zalduari, naski– gaztigatu dio hauxe esanez: “...hi ez haiz horren inportantea nire nobelan: hi bosgarren edo seigarren mailako pertsona bazik ez haiz. Baina ipuin-liburu bat argitaratuko duk aurki” (...). “Hire irakurleei jakinarazi nahi nieran, besterik gabe, zer mun-



Liburua:

Ipuinak –Antologia bat–

Egilea: Iban Zaldua

Argitaletxea: Erein (poltsiko.e)

dutan bizi diren” gaztigatu zion Anderrek.

Ipuinen antologia hau Iban Zalduaren munduaren erretratua da. Ez da nobela bat, baina bere munduko pertsonaien ibilerek, hari narratibo bat uztartuz gero, nobela baterako bidea urrats lezakete. Hona sipnosia:

Nobela Euskal Herrian kokatuta dago. Protagonista ETA erakundeko ekintzailea da. Ipuin euskaldunez osatu du bere irudimena. Gezurrak, traizioak eta itzalak nagusitzen dira haren bizitzan. Kontuak ez du erremediorik. Nobela, alabaina, etorkizuna iragartzen hasten da.

– Ama: hildakoak, nora eramaten dituzte?

Liburu iruzkingile naizen eskas honen gardiz, egileak nobelaren dodekalogo bat idatziko du nobelaren amaieran. Puntu hauek, besteak beste:

1. Nobelak, ipuinak ez bezala, digresioa onartzen du. Salbu eta beste digresio batzuk ekiditen laguntzen badu, noski.
2. Literatura jostailuzko tren bat balitz, burdinbide zirkularrekoa izango litzateke nobela; ipuina, ordea, lerro okerrekoa (baina, hasiera eta amaiera jakinekoa). Dena dela, kontua, hala batean nola bestean, lokomotora ez deskarrilatzean datza.

MIKEL ASURMENDI

k u l t u r a g e n d a

Urriak 15

- Amaia KZn, 20:00etan, zine kluba. *Septiembre del 75* filma emango da.



1975eko irailaren 27an, Xosé Humberto Baena FRAPeko militante gaztea fusilatu zuten, polizia bat erail izanaz salatua; baina epaiketan ez zuten ez frogarik ez lekukorik aurkeztu.

Urriak 17

- Bigarren eskuko gaien azoka. Antolatzailea: Txingudiko Zerbitzuak. Lekua: Zabaltza plaza. Ordutegia: 10:00etatik 14:00etara.

Urriak 21

- Amaia KZn, 19:30ean,

ikus-entzunezkoa. Izenburua: *Papua-Nueva Guinea: Una isla. dos países.*

Urriak 22

- Junkal elizan, 20:00etan, organo eta ahots kontzertua. Organo jotzailea: Ana B. Garcia, Donostiako Sta. Maria elizako organo-jotzaile postuaren jabeakidea. Ahotsa: Haizea Muñoz sopranoa.

Urriak 26-Azaroak 7

- Euskadiko Kutxan, Quique Escalanteren omenezko argazki erakusketa. Antolatzailea: Alarde Tradizionalaren Batzordea.



- Amaia KZn, 17:00etan, *Lauaxeta - A los cuatro vientos* filmaren emanaldia, Kutxaren eskutik. Sartzeko, gonbidapena behar izango da.

Mendiexpo



Noiz: Urriak 30-31 eta azaroak 1.

Non: FICOBAn.

Mendiaren, Eskiaren, Abenturaren, eta Bidaien Azoka.

- Jendearentzako zuzeneko salmenta.
- Lehen mailako proiektioez, hitzaldiez eta jarduera paraleloez osatutako programa.

Urriak 28

- Ikust-Alaia liburutegian, 19:30ean, Miguel Hernandezen omenezko poesia errezitaldia.

Urriak 30

- Amaia KZn, 20:00etan, LES PETITS CHANTEURS DE SAINT-MARC abesbatzaren kontzertua. Sarrerak: 28 euro

Ikust - Alaia Liburutegiko ekintzak

- **Urriaren 18an**, 19:00etan, Libroforum tailerra. Liburua: Ana Maria Matuteren *Paraiso inhabitado*.

- **Urriaren 18an**, 19:30ean, idatzizko adierazpen tailerra.

- **Urriaren 20an**, 17:30ean, haurrentzako ipuin kontalariak. Maider Galarzak

Beldurrentzako ipuinak kontatuko ditu.

- **Urriaren 21ean**, 17:00etan, Carlos de Agustinen mintegia. Gaia: Bruno Bettelheim-en *Psicoanálisis de los cuentos de hadas*.

- **Urriaren 21ean**, 19:30ean, helduentzako ipuin kontalariak, euskaraz. Ipuina: *Bidean... entzundut*.

- **Urriaren 25ean**, 17:30ean, poesia taldea: Guillermo Carnero.

- **Urriaren 26an**, 19:00etan, irakurketa kluba. Jane Austenen *Orgullo y prejuicio*.

- **Urriaren 27an**, 17:30ean, haurrentzako ipuin kontalariak, gaztelaniaz. *El regalo fantástico*.

- **Urriaren 28an**, 17:00etan, Carlos de Agustinen mintegia. Egilea: Denis Dutton.



Adour Bidasoa margo erakusketa



Noiz: Urriaren 9tik azaroaren 7ra.

Non: Amaia KZn

Adour Bidasoa XIX. Margo Lehiaketako obra hautatuak ikusgai izango dira.

Orduetgia: asteartetik larunbatera, 18:00etatik

21:00etara; igande eta jaiegunetan, 11:30etik 13:30era.

Sarrera: doan.

Miren Urbietaren errezitaldia

Noiz: Azaroak 6. **Lekua:** Amaia KZn. **Ordua:** 19:00etan.

Miren Urbietaren sopranoaren errezitaldia eskainiko du.

Antolatzailea: Luis Mariano Lirika Elkartea.



Orrialde hauetako informazio guztia, zabalago, www.irun.org/igazte webgunean.

Lehiaketak



- ARGAZKI LEHIAKETA. Irungo Argazki Elkarteak *Irun Hiria* Argazki Lehiaketa antolatatu du. Nahi duen zale orok parte har dezake. Epea: Urriak 20.

- KIROLGI FUNDAZIOAREN ARGAZKI LEHIAKETA. Gaia: Gipuzkoako kirola. Baldintzak: Egileak, afizionatuak nahiz profesionalak, 18 urtetik gorakoak izango dira. Epea: Urriak 29.

Bideoak euskaraz izango dira. Epea: Urriaren 1etik azaroaren 15era bitartean "igo" beharko dira, Euskaltubera edo Youtubera. Saria: 1.500 euro.



- GAZTEZULO BIDEO LEHIAKETA. Baldintzak: 16 urtetik gorakoentzat. Bideoen iraupena: gutxienez minutu bat, eta, gehienez, hiru.

Bekak



- IKERTZAILE ETA TEKNOLOGO GAZTEAK PRESTATZEKO DIRULAGUNTZAK. Baldintzak: Goi mailako unibertsitate titulua izatea, gehienez ere deialdia baino 4 urte lehenago eskuratua. Epea: Urriak 20.



harpidetza



INFORMAZIOA
Tel 843 506 444
843 506 440

Beka, jardunaldi, ikastaro, lehiaketa edo lanari buruz adi egon nahi baduzu, eska izaiguztu, eta astero bidaliko ditugu informazioa zure etxera nahiz posta elektronikora.

IZEN-ABIZERNAK
HEKIDENA
P.K. BERRIA
POSTA ELEKTRONIKOA

Si quieres estar al día sobre becas, actividades, cursos, concursos y trabajo, pldmenjo y te enviaremos informaciqn personal a tu casa o correo electrdnico.

- **MASTER OFIZIALAK EGITEKO LAGUNTZAK** unibertsitari lan-gabeentzat. Deialdigilea: Hezkuntza Ministerioa. Baldintzak: Master ofiziale-tan matrikulatuta egotea. Epea: Azaroak 16.

Lafia



- **HAUR HEZITZAILEAK BEHAR** dira. EGA duten eta haur taldeetan esperientzia duten ikasleak behar dira. Kiriketan: 943 453334.



Ikastaroak



- **MUGABECLOWN-EK TAICHI CLOWN ETA NATURA** ikastaro trinkoa antolatu du. Lekua: Intza (Nafarroa). Animazioa: Ramon Albistur eta Juanjo Elola. www.uhartean.com

- **ENERGIAREN ERABILPEN HOBEA.** Asmoz Fundazioak antolatuta. Iraupena:

2010eko azaroaren 15etik abenduaren 31ra arte. Aukera askeko kredituak. Izena ematea: Azaroaren 13ra arte.

Ikastaroak



- **FRANTSESEZKO KLASE PARTIKULARRAK.** Frantziar irakasle lizentziatua. Maila guztiak. Elkarrizketa saioak. 610 74 86 65.

- **LIZENTZIADUN IRAKASLEAK** euskara klaseak ematen ditu. Maila guztiak. 619 13 88 01.

Nafare Txiki

Musika tailerraren bidez abesbatzaren munduaz gozatzeko aukera ematen zaie 4 urtetik gorako haurrei. **EUSKARAZ!** Asteazkenero: 5:30-6:30 656 777 366 (Eduerne).



Ideliatik enpresara

Bidasoa Biziriketik antolatutako 4 tailerrek osatzen dute programa: EKITEA, PROIEKTATZEA, SORTZEA eta FINKATZEA. Interesdunek Autoenplegu Departamentura jo behar dute.



Irratia gustuko?

Gazteei zuzenduriko irratsaio batean parte hartu nahi duzu? Idatziezaguzu: **Gure kabuz** irratsaia.

gazteria@donostia.org





Biltegi eta bulegoak:
Txirrita Maleo 4 - 20100 Errenteria

Denda:
San Francisco, 15 - 20002 Donostia
San Francisco, 24 - 20002 Donostia
Duque de Mandas, 45 - 20012 Donostia
Isabel II, 15 - 20011 Donostia
Plaza Aralar, 1 - 20100 Errenteria
Avda.de Ezkiaga, 1A-1B - 20200 Beasain
Leizeaga, 3 - 20570 Bergara
Salvador Etxeandia, 6 - 20304 Irun

Erka Osagai Elektrikoak S.L.
c\ Salvador Etxeandia, 6 Behea
Tel: 943 62 52 49 Fax: 943 53 73 48
20304 Irun



- Industriako eta etxeko instalazio elektrikoen biltegia.
- Lanpara erakusketa.